- Estanqueidad de polvo y a la Lluvia.

Arrastoen kontrako babesa eta zaharkitzearen aurreko erresistentzia.

Protección contra el rayado y resistencia al envejecimiento.

Aparatuak arrastoen kontrako babesa eta zaharkitzearen aurreko erresistentzia erakutsi behar ditu. Arrastoen probaren ondoren, makinaren elementu guztiek ez dute izango informazioak behar bezala irakurtzea eragozteko moduko inolako dekoloraziorik.

El aparato debe de presentar una protección al rayado y una resistencia al envejecimiento. A continuación de la prueba de rayado, el aparato no debe de presentar ninguna de coloración de ningún elemento, capaz de disminuir la legibilidad de las informaciones.

Korrosioarekiko erresistentzia.

Resistencia a la corrosión,

Aparatuaren kanpoaldeko gainazal pintatu guztien babesak korrosioarekiko erresistentzia kontrolatua du.

La protección de todas las superficies exteriores pintadas del aparato presenta una resistencia a la corrosión controlada.

10.- Pantaila eta teklatua:

10.- *Display* visualizador y teclado:

Parkimetroek pantaila bana izango dute, argiteriarik egon ez arren ere iluntzean automatikoki argiztatzen dena. Pantaila horrek, halaber, baldintza-agiri honetako aurreko ataletan zehaztutakoa bete beharko du.

Interfazearen multzoa (pantaila + teklatua) erabiltzailearentzat ahalik eta erosoena eta erabiltzeko errazena izango da. Teklatua osoa izango da, hau da, tekla bakoitzari letra bat egokituko zaio.

Los parquímetros irán provistos de display visualizador, iluminado automáticamente al oscurecer, incluso sin presencia de alumbrado. Este display visualizador deberá cumplir asimismo lo especificado en anteriores apartados de este Pliego.

El conjunto de la interfaz (pantalla + teclado) deberá ser lo más cómoda y fácil de utilizar por parte de los usuarios. El teclado será completo, de modo que cada tecla representará una letra.

11.- Ohartarazle akustikoa:

Inprimitzeko mekanismoek oso soinu gutxi ateratzen dutenez, ekipoak ohartarazle akustiko bat izan behar du, erabiltzaileei tiketa atera dela jakinarazteko.

11.- Avisador acústico:

Dado el bajo nivel de ruido de los mecanismos de la impresión, el equipo deberá ir dotado de un avisador acústico que advierta de la emisión del ticket para facilidad del usuario.

12.- Tarifak eta ordutegiak:

Udalak ezarritako tarifak eta ordutegiak aplikatuko dira beti.

Tiket-makinek prestatuta egon behar dute bertan aldaketak erraz egiteko moduan, ordenagailuaren memorian egongo den eragingailu sinple baten bidez. Halaber, kokalekuaren arabera, ekipoak erabiltzaile-mota desberdinei (errotazioa eta egoiliarrak) erantzutea ahalbidetu behar du, tarifei eta aparkaldiei dagokienez haiei tratamendu desberdinak aplikatu behar bazaizkie.

12.- Tarifas y horarios:

Se aplicarán en todo momento las tarifas y horarios establecidos por el Ayuntamiento.

Los aparatos expendedores deberán estar preparados para que puedan realizar fácilmente modificaciones de estos, mediante un accionamiento sencillo en la memoria del ordenador. También deberá permitir el equipo el tratamiento de distintas modalidades de usuarios (rotación y residentes), según los lugares de ubicación, a los que les sean aplicables tratamientos diferenciales en materia de tarifas y

períodos de estacionamiento.

13.- Tiketa:

Erabiltzaileak hala eskatzen badu, tiket-makinak tiket bat eman behar dio, ordaindutako aparkaldiaren ordainagiri gisa. Tiketaren inprimaketa termikoa izango da eta gehienez ere 3 segundotan egingo da. Tiketak euskaraz eta gaztelaniaz inprimatuko dira.

13.- Tique:

El expendedor deberá estar en disposición de proporcionar al usuario, si este lo solicita, un ticket como resguardo a conservar en su poder a título acreditativo del pago del tiempo de estacionamiento abonado. La impresión del ticket será térmica y la velocidad de emisión del mismo no superará los 3 segundos. El ticket será impreso en euskera y castellano.

14.- Autobabesa eta matxura-abisua:

Tiket-makinak autobabesteko eta matxurez ohartarazteko hainbat mekanismo izango ditu, matxura horiek ahalik eta azkarren aurkitzea ahalbidetzeko. Mekanismo horien artean aintzat hartuko dira:

- Objektu arrotzen aurrean txanponen sarbidea automatikoki ixtea.
- Pantailan agertzen diren zenbakizko kodeen bitartez matxurak antzemateko lekuko digitala.
- 300/500 tiket bakarrik geratzen direnean paper-erreserbaren ohartarazpen optikoa.

Goian aipatutako gertakarietako bat jazoz gero, sistema nagusian islatuta geratuko dira parkimetroaren zenbakia eta izandako matxura. Era berean, sistemak gertaera horren amaiera islatuko du, bukatzen denean.

14.- Autoprotección y aviso de avería:

El expendedor deberá disponer de una serie de mecanismos de autoprotección y de aviso de avería que permitan una rápida localización de estas. Entre estos mecanismos se considerarán:

- Cierre automático de la ranura de admisión de monedas ante la presencia de objetos extraños.
- Testigo digital de apreciación de averías mediante códigos numéricos que aparecen en el visor.
- Aviso óptico de reserva de papel cuando sólo queden 300/500 tickets.

En caso de producirse cualquiera de las incidencias anteriores, en el sistema central quedará reflejado el número de parquímetro y la avería producida. De la misma forma el sistema reflejará el fin de la incidencia cuando este tenga

Getariako Udala

Getaria Herria itsaso

lugar.

Adjudikaziodunak ezarri beharko ditu matxurak antzemateko eta mantentze-lanetako zerbitzuak. Zerbitzu horiek bermatu behar dute, tiket-makina batek martxan egon gabe jarraian 10 ordu baino gehiago egon ez dadin, makina konpontzea edo doikuntza egitea.

El Adjudicatario deberá establecer los servicios de detección de averías y mantenimiento que permitan garantizar su reparación o puesta a punto, de modo que ningún expendedor permanezca fuera de servicio más de 10 horas consecutivas.

15.- Diru-bilketa:

15.- Recaudación:

Baldintza normaletan diru-bilketa bi astean behin egingo da. Itsulapikoak gutxienez 4,5 litroko edukiera izango du.

En condiciones normales la recaudación se hará una vez por cada dos semanas. La capacidad de la alcancía será al menos de 4,5 litros.

16.- Kudeaketa-tiketa:

16.- Ticket de gestión:

Diru-bilketa amaitu eta segurtasun-giltza ateratzean, tiket-makinak estatistika-kudeaketarako tiket bat emango du, besteak beste, ondoko informazioekin:

- Tiket-makinaren zenbakia.
- Hasieratik (ezarpena) egindako zenbatgarren diru-bilketa den.
- Diru-bilketaren data eta ordua.
- Hasieratik bildutako guztia.
- Aurreko diru-bilketa egin zenetik jasotako guztia.
- Egindako diru-bilketa, dirutan (txanpon-motak bereizita) nahiz txartel bidez.
- Saldutako tiketak, tarifen arabera eta aparkamendu-motaren eskaerarenarabera.

Al terminar la recaudación y retirar la llave de seguridad, el expendedor emitirá un ticket de gestión estadística donde aparecerán las siguientes informaciones, entre otras:

- Nº de expendedor.
- Nº de recaudación efectuada a origen (implantación).
- Fecha y hora de recaudación.
- Total recaudado a origen.
- Total recaudado desde anterior recaudación.
- Recaudación efectuada, tanto en metálico (diferenciando por tipo de monedas) como por Autorizacións.
- Tickets emitidos, según tarifas y según demanda de tipo de estacionamiento.

Tiket-makinan jasotako informazioak GPRS sistema bidez edo antzeko beste sistema baten bidez ordenagailu nagusiarekin esteka eginez jaso ahal izan behar da.

La información contenida en el expendedor deberá poder ser recogida mediante enlace vía sistema GPRS o similar con el ordenador central.

17.- Irisgarritasuna betetzea:

17.- Cumplimiento de la accesibilidad:

Komunikazioko sistemen irisgarritasunari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuan zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte makinek.

Los parquímetros deberán cumplir las especificaciones sobre accesibilidad en la comunicación definidas en el Anejo IV de las Normas Técnicas de Accesibilidad (Decreto 68/2000 del Gobierno Vasco).

19 artikulua. SALAKETAK JARRI ETA TRAMITATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA.

Artículo 19. SISTEMA INFORMÁTICO PARA IMPOSICIÓN Y TRAMITACIÓN DE DENUNCIAS.

Enpresa adjudikaziodunak hornitu beharko ditu salaketak goitik behera eta eraginkortasunez kudeatzeko ekipo eta programak. Sistemak Udalaren jarraibideen arabera pertsonalizatuta egon beharko du, eta honako hauek izan beharko ditu gutxienez:

El contratado aportará los equipos y programas necesarios para la completa y eficaz gestión de denuncias, personalizada de acuerdo a los requisitos fijados por el Ayuntamiento, el sistema incluirá al menos:

Tiket makinen eta salaketen, diru-bilketaren eta egoiliarren inguruko kontsulta-eragiketa guztien kudeaketa integralerako behar den softwarea, Getariako Udalak isunak eta haien diru-bilketa egiteko programekin bateragarriaizango dena.

Deberá aportar el software correspondiente para la gestión integral de todas las operaciones de consulta del sistema tanto de los aparatos parquímetros como de sanciones, recaudación, control de residentes, asegurando la compatibilidad con el software utilizado por el ayuntamiento para la tramitación y recaudación de las multas.

Salaketak egiteko terminal eramangarriak (matrikulak automatikoki irakurtzeko OCR sistemarekin) bakoitzak bere inprimagailua,

Terminales portátiles para la para imposición de denuncias (con sistema de lectura de matrículas OCR), provistos de las correspondientes

osagarriak eta programak dituela.

Terminaletako salaketei buruzko datuak eskuratu eta mantentzeko behar diren ordenagailuak, inprimagailuak, konektatzeko eta komunikatzeko gailuak, bai eta programak.

Salaketen kudeaketa osoa bermatzeko, adjudikaziodunak beharrezkotzat jotzen dituen baliabide osagarriak.

Isunak eta egoiliarrak kudeatzen dituen software-ak, ahalmen hauek izan behar ditu:

Fitxategi plano bat sortzeko aukera plegu hauen II. ERANSKINEAN atxikitzen den formatuarekin.

Aplikazioaren datuak (egoiliarrak, isunak, etab.) kalkulu-orrira edo azken honetara inportatu daitekeen fitxategira esportatzeko ahalmena.

Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak idatziz eta eskaintzaren barruan konpromisoa hartuko du bere datu-formatua isunez arduratzen den udal-sailak dauzkanekin bateratzeko, esportaziokorako eta trukerako zer formatu erabiliko duen zehaztuta. Isunetarako eta trukerako testu-formatu hori berariaz bateragarria izango da Udalak dauzkan aplikazioekin, eta formatuak egokitu egin beharko ditu enpresak gutxieneko betebehar horiek ziurtatu arte.

impresoras, accesGetarias y programas

AccesGetarias de conexión y comunicaciones y programas necesarios para el mantenimiento y recuperación de datos de denuncias de los terminales.

Cuantos medios accesGetarias auxiliares considere convenientes al objeto de garantizar la gestión más completa de las denuncias.

El software de gestión de multas y residentes, deberá tener las siguientes capacidades:

Poder generar un fichero plano con el formato que se adjunta en el ANEXO II de estos pliegos

Poder exportar los datos del aplicativo (residentes, sanciones, etc.) a hoja de cálculo u otro fichero el cual se pueda importar a hoja de cálculo.

En cualquier caso la empresa adjudicataria se comprometerá por escrito y en su oferta a compatibilizar su formato de datos con los actualmente existentes en el departamento municipal encargado de sanciones, especificando el formato de exportación e intercambio. Este formato de texto de sanciones e intercambio será expresamente compatible con las aplicaciones existentes municipales, debiendo la empresa adaptar sus formatos para obtener este propósito de mínimos.

IV.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

IV.- DOCUMENTACIÓN TÉCNICA A PRESENTAR.

20.artikulua. GIZA BALIABIDEEN PLANA

Eskaintzaileek Giza Baliabideen Plan bat aurkeztuko dute; bertan alderdi hauek jasoko dira, besteak beste:

- Funtzioak nork beteko dituen, kontrol-errondak eta txandak.
- Zerbitzuaren kudeaketaz arduratuko diren langileak.
- Zerbitzua behar bezala ematekobermeak.
- Langileei buruzko politika.

Kapitulu hauek guztiak behar bezala deskribatuta eta baloratuta aurkeztuko dira.

21.artikulua. PROIEKTU TEKNIKOA

Lizitatzaileek, besteak beste, gutxienez alderdi hauek jasoko dituen proiektu tekniko bat aurkeztuko dute:

- Proposatutako kudeaketa-sistema zentralizatuaren garapen osoa eta haren aldaerak eta hobekuntzak.
- Komunikazio-sistemaren garapena eta hark izan ditzakeen hobekuntzak eta aldaerak.
- Isunak kudeatzeko plana eta sistema.
- Parkimetroei buruzko zehaztapenak.
- Zaintzaileen terminalen, beste ekipo batzuen (irrati, PDA, ibilgailu, etab.) eta baliabide materialen deskribapena.
- Garatu behar duten softwarearen deskribapena.

Artículo 20. PLAN DE RECURSOS HUMANOS

Los licitadores presentarán un Plan de Recursos Humanos en el que, entre otros aspectos se contemplará:

- Cobertura de funciones, rondas de control y turnos.
- Personal responsable de la gestión del servicio.
- Garantías de una adecuada prestación del servicio
- Política de personal

Todos estos capítulos se presentarán convenientemente descritos y valorados

Artículo 21. PROYECTO TÉCNICO

Los Licitadores presentarán un Proyecto Técnico en el que, entre otros aspectos, deben al menos contemplar:

- Desarrollo completo el Sistema de Gestión centralizado propuesto y sus variantes y mejoras.
- Desarrollo del sistema de comunicaciones y sus posibles mejoras y variantes.
- Plan y sistema de gestión de sanciones.
- Especificaciones de los parquímetros.
- Descripción de terminales de los vigilantes, otros equipos (radio, pda, vehículos...) y medios materiales.
- Descripción el software que deben desarrollar.

- Informatika- baliabideak eta barne-komunikazioko sistemak.
- Berritzeko materialak, stockak.
- Tiket-makinen kokapenari buruzko proposamena. Adjudikaziodunak tiket-makinen kokapena eta seinale bertikalena adieraziko du dokumentazio grafikoan eta idatzian. Dokumentazio horri CD bat gehituko dio ".dwg" formatuan jasotakoezarpen-planoekin.
- Epeak eta laneko plana.
- Idatzizko konpromisoa enpresaren datu-formatua isunez arduratzen den udal-sailak dauzkanekin bateratzeko, esportaziokorako eta trukerako zer formatu erabiliko den zehaztuta. Isunetarako eta trukerako testu- formatu hori berariaz bateragarria izango da Udalak dauzkan aplikazioekin, eta formatuak egokitu egin beharko ditu enpresak gutxieneko betebehar horiek ziurtatu arte.

Kapitulu hauek guztiak behar bezala deskribatuta eta baloratuta aurkeztuko dira.

- Medios informáticos y sistemas de comunicación internos.
- Materiales de reposición, stocks.
- Propuesta de ubicación de las máquinas expendedoras. El adjudicatario indicará en su oferta en documentación gráfica yescrita la ubicación de los expendedores y de la señalización vertical. Incluirá un CD con los planosde implantación en formato ".dwg".
- Plazos y Plan de trabajo.
- Compromiso por escrito y de compatibilizar su formato de datos con los actualmente existentes en el departamento municipal encargado de sanciones, especificando el formato de exportación e intercambio. Este formato de texto de sanciones e intercambio será expresamente compatible con las aplicaciones existentes municipales, debiendo la empresa adaptar sus formatos para obtener este propósito de mínimos.

Todos estos capítulos se presentarán convenientemente descritos y valorados.

V.-ZERBITZUA KUDEATZEKO BALDINTZAK

22.artikulua.- ZERBITZUA

Esleipendunak Administrazio Klausula Zehatzen Agirian xedatutakoa, agiri honetan xedatutakoa, edo Udalak gero agindutakoa

V.- CONDICIONES DE GESTIÓN DEL SERVICIO

Artículo 22.- PRESTACION

El Adjudicatario deberá prestar el servicio del modo dispuesto en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y lo dispuesto en

betez eman beharko du zerbitzua; eta ezingo dio kontratua edo honen zati bat beste inori laga, Udalbatzaren berariazko baimenik ez badu.

este, u ordenado posteriormente por el Ayuntamiento, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin autorización expresa de la Corporación.

Hizkuntzari lotutako baldintzak

Condiciones lingüísticas

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna Udalari eskatzen zaizkion hizkuntza-baldintza berdinetan egingo dira.

La atención a las personas usuarias se llevará cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan al Ayuntamiento.

Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

De conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento, la atención se hará inicialmente en euskera. Asimismo, se harán en euskera las notificaciones y comunicaciones (impresos, notas, avisos, horarios, facturas y otros documentos de tráfico). Los ciudadanos podrán ejercitar en cualquier momento su derecho a la elección de lengua.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak UEMAra eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

La empresa contratada deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados. Para ello, los textos de amplia difusión o uso repetitivo se presentarán ante UEMA, que comprobará si son correctos o no; y en caso de que no lo sean, se requerirá su corrección por cuenta de la propia empresa.

Kontratu gauzatzeko bete beharreko hizkerari dagozkion baldintzak:

Condiciones para cumplir acerca del uso del lenguaje:

Kontratu honek kontuan izango du 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta

Este contrato tendrá en cuenta lo establecido por el Decreto Legislativo 1/2023 para la Igualdad de

Gizonen Berdintasunerakoak ezartzen duena hizkeraren erabilera ez sexistari buruz.

Horren jarraipena zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Berdintasun Zerbitzuari. Ondoren, Berdintasun Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

mujeres y Hombres acerca del uso del lenguaje no sexista.

El seguimiento de ello deberá hacerlo el departamento que promueva el contrato, al igual que haga con el resto de las condiciones, y dará conocimiento de ello al servicio de Igualdad. A continuación, el servicio de Igualdad dará su conformidad o propondrá las medidas correctoras necesarias.

23.artikulua.- ALOKAIRUA

1.- Ibilgailuen aparkamendua arautzeko eta antolatzeko kudeaketa- eta kontrol-zerbitzuaren adjudikazio honi atxikitako elementu material berriak ALOKAIRU BIDEZ hartuko dira.

Artículo 23.- ALQUILER.

1.- Los elementos materiales nuevos adscritos a esta adjudicación del servicio para la Gestión y control de limitación y ordenación del estacionamiento de vehículos se REALIZARÁN EN RÉGIMEN DE ALQUILER.

VI.- ERREGIMEN BEREZIAK

VI.- REGÍMENES ESPECIALES

24.artikulua. UDAL ORDENANTZAN JASOTAKO BAIMENAK

Aparkalekuen ordenantzan jasota dauden txartelen jabeek pribilegio bereziak dituzte bertakoen guneetan aparkatzeko eta TAO eremuan.

Dagokion Ordenantzan jasota daude Getariako Udalak zer baldintzatan emango dituen Baimenak eta bakoitza nola erabili ahal izango den.

Artículo 24.- AUTORIZACIONES CONTEMPLADAS EN LA ORDENANZA DE APARCAMIENTO MUNICIPAL

Las personas poseedoras de Autorización contemplada en la Ordenanza de aparcamiento gozan de unas prerrogativas especiales en la Zona de residentes y OTA.

Las condiciones en que el Ayuntamiento de Getaria conceda las Autorizaciones, y el uso que se deba hacer de las mismas están recogidas en la Ordenanza correspondiente.

VII.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

VII.-DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA ADMINISTRACION

25.artikulua.- IKUSKARITZA ETA KONTROLA

1.- Udalak zerbitzua ondo dabilela ikuskatu eta kontrolatzeko eskumena izango du une oro.

2.- Udalak instalazioen egoera eta agindutako lanen garapen egokia kontrolatuko ditu eta, beharrezko ikusiz gero, haiek zuzentzeko proposamenak egingo ditu, bai eta zuzenketak egiteko epeak eta kontratuaren baldintza hauek ez betetzeagatik dagokion espedientea irekitzeko proposamena ere.

3.- Udalak adjudikaziodunaren kontuen kanpoko ikuskapen bat egiteko eskumena izango du, kontratu honi bakarrik dagokionean eta egoki iruditzen zaion bakoitzean.

4.- Kanpoko ikuskapen hori beharrezkoa izango da beti adjudikaziodunak edo Udalak kontratuaren baldintzak aldatzea proposatzen badu.

5.- Kanpoko ikuskapenei loturiko kostu guztiak haiek eskatu dituen alderdiaren kontura izango dira.

26.artikulua.- BETEBEHARRAK

Baldintza administratibo berezien agirian zehaztuta daude.

Artículo 25.- INSPECCION Y CONTROL

1.- La facultad de inspección y control del funcionamiento del servicio corresponde al Ayuntamiento.

2.- El Ayuntamiento controlará el estado de las instalaciones, así como el correcto desarrollo de las labores encomendadas, elaborando, si se considera necesario, las propuestas para su corrección, así como los plazos para su adopción, y la propuesta de apertura de expedientes por incumplimiento de los presentes Pliegos del contrato.

3.- El Ayuntamiento se reserva la facultad de realizar auditorías externas sobre las cuentas de la Concesionaria, y sólo en lo referente al presente contrato, siempre que lo estime conveniente.

4.- Dicha auditoría externa será siempre necesaria en aquellos casos en que el Adjudicatario o el Ayuntamiento proponga modificar las condiciones del contrato.

5.- Todos los costos asociados a las auditorías externas serán a cuenta de la parte solicitante de las mismas.

Artículo 26.- OBLIGACIONES

Definidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

27.artikulua.- ZIGORREN ERREGIMENA

1.- Kontratuko ondorioetarako, zigortzeko arau-haustea izango da baldintza-agirian zehaztutako eskakizunak hausten dituen kontzesiodunaren ekintza edo ez-egite oro.

2.- Alkateak dekretatuko dituen zigorrak ezartzeko, dagokion prozedura bideratu behar da eta hori Udalak, edozein bidetatik, hutsegitearen berri duen unean hasiko da. Dagokien udal-zerbitzuek gertatutakoa argitzeko tramiteak egiteari ekingo dio, kontratistari entzun ondoren.

3.- Administrazio-bidetik zigorra irmoa denean ordainduko du zenbatekoa adjudikaziodunak.

4.- Arau-hauste larriak izango dira baldintza-agiri honetako 26. artikuluan adierazitako edozein betebehar ez betetzeari dagozkionak.

5.- Orokorrean arau-hauste larritzat hartuko dira engainuzko jardueren, ikuskapenak nahiz eskatutako lanak behar bezala ez egitearen edo kontratuko prestazioen edo eskakizunen ondorioz, instalazioak osatzen dituztenen bizitza ekonomikoan eragin negatiboa izan dezaketenak edo erabiltzaileei eragozpenak eragiten dietenak edo kontratatutako lanen inguruan Udalak egindako kontrolari nahiz ikuskapenari kalte larria eragiten diotenak.

6.- Halaber, arau-hauste larria izango da

Artículo 27.- RÉGIMEN DE SANCIONES

1.- A efectos contractuales se considera falta sancionable toda acción u omisión del Adjudicatario que suponga un quebranto de las exigencias especificadas en el Pliego.

2.- La imposición de las Sanciones a decretar por el Alcalde requerirá la instrucción del oportuno procedimiento que se iniciará cuando, por cualquier medio, tenga el Ayuntamiento conocimiento de la falta. Se procederá por los servicios municipales competentes a efectuar las diligencias que conlleven el esclarecimiento de los hechos, previa audiencia del contratista.

3.- El importe de las Sanciones será abonado cuando la sanción sea firme en vía administrativa.

4.- Serán estimadas faltas graves las que se refieren al incumplimiento de cualquiera de las obligaciones reseñadas en el artículo 26 de este Pliego.

5.- En general se considerarán faltas graves aquellas que como consecuencia de actuaciones dolosas, realización deficiente de las inspecciones o de los distintos trabajos exigidos o de las prestaciones y exigencias contractuales, puedan influir negativamente en la vida económica de los componentes de las instalaciones o causar molestias a los usuarios o causen un grave perjuicio al control o a la inspección municipal de los trabajos contratados.

6.- Igualmente será clasificada como falta grave,

Udalak emandako aginduak horretarako ezarritako epean ez burutzea, bereziki, matxuratutako tiket-makina bat 48 ordu naturaleko epean ez konpontzea edo ez aldatzea.

la no ejecución de las órdenes cursadas por el Ayuntamiento en el plazo establecido, en especial la no reparación o sustitución de un expendedor estropeado en el plazo de 48 horas naturales.

7.- Arau-hauste larria izango da hiru arau-hauste arin egitea.

7.- Se considerará falta grave la acumulación de tres faltes leves.

8.- Era berean, arau-hauste larria izango da kontratatutako zeregin edo zerbitzuetako bat ez ematea (adibidez, seinale bertikalak ondoez mantentzea).

8.- También tendrá carácter de falta grave la no prestación de alguna de las operaciones o servicios contratados (por ejemplo, el mantenimiento deficiente de la señalización vertical).

9.- Sistemaren funtzionamendu txarra. Udalak egindako ikuskapen batean, arlo jakin batean (gutxienez etxadi bat) Udal ordenantzari dagokionez legez kanpoko egoeran egonik salaketarik ez duten %10 ibilgailu antzematen direnean, ikuskapena errepikatuko du 20 minutu igaro eta gero. Legez kanpo dauden ibilgailuen ehunekoa aldatzen ez bada, arau-hauste larria izango da; bestela, arau-hauste arina izango da.

9.- Mal funcionamiento del sistema. Cuando una inspección realizada por el Ayuntamiento detecte un 10% de vehículos sin denuncia y en situación de ilegalidad respecto a la Ordenanza de Tráfico y Aparcamiento en un área determinada (mínimo una manzana), repetirá la inspección transcurridos 20 minutos. Si se mantiene el porcentaje de ilegalidad será considerado falta grave, en caso contrario se entenderá como falta leve.

10.- Adjudikazio-aldi berean aurreko artikuluan deskribatutako egoera hiru aldiz errepikatzen bada, hutsegite oso larria izango da eta, 6 aldiz errepikatuz gero, kontratua amaitzeko arrazoia litzateke, kontratistak kontratua bete ez duelako eta, beraz, adjudikaziodunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

10.- Si la situación descrita en el artículo anterior se repitiese tres veces en el mismo período de adjudicación será considerado falta muy grave y si se repitiese 6 veces, motivo de Resolución del Contrato por incumplimiento del Contratista, sin que el Adjudicatario tenga derecho a indemnización alguna.

11.- Halaber, hutsegite oso larria izango da:

11.- Igualmente se considerará falta muy grave:

- Zerbitzua ematen EGUN BATetik gorako atzerapenarekin hastea, aurreikusita dagoen datarekiko, ezinbesteko arrazoiren batengatik denean salbu.
- Udalaren berariazko baimenik gabe, kontratatutako zerbitzu guztiak edo zati bat besteri laga, besteri alokatu, edo eskualdatzea.
- Adjudikaziodunak zerbitzua emateari uztea, hori zilegi egiten duten legezko egoerarik gertatu gabe.
- Adjudikaziodunak zerbitzuaren erabiltzaileen aldetik behar bezala baimenduta ez dagoen edozein ordainsari, kanon edo sari jasotzea.
- Udaltzaingoaren ordenagailuetan islatutako datuak unitate zentralekoekin edota kaleko benetako egoerarekin bat ez etortzea.
- Ezarpen-epeak ez betetzea.
- Udalari iruzur ekonomikoa egitea.
- Administrazioak ezarritako zigor ekonomiko bat ez ordaintzea (hilabeteko epean). Arau-hauste oso larritzat hartuko da bost arau-hauste larriren metaketa.

12.- Arau-hauste arina:

Arau-hauste arinak izango dira makurkeriaz egindako jarduera baten edo gaizki egindako ikuskapen baten ondoriozkoak ez direnak, edo pertsona nahiz ondasunentzako arriskurik

- La demora en el comienzo de la prestación del Servicio en un plazo superior a UN DIA sobre la fecha prevista, salvo causa de fuerza mayor.
- Cesión, subarriendo o traspaso total o parcial de los servicios contratados sin autorización expresa del Ayuntamiento
- La cesación por el Adjudicatario en la prestación del Servicio sin la concurrencia de las circunstancias legales que lo hagan legítimo.
- La percepción por el Adjudicatario de cualquier remuneración, canon o merced, por parte de los usuarios del servicio que no estén debidamente autorizados.
- La no coincidencia de los datos reflejados en los ordenadores de la Policía Municipal con los de la unidad central y/o con la situación real en la calle.
- El incumplimiento de los plazos de implantación.
- El fraude económico al Ayuntamiento.
- El impago de una Sanción económica impuesta por la Administración en el plazo de un mes. Se estimará como falta muy grave la acumulación de cincofaltas graves.

12.- Falta leve:

Se considerarán faltas leves aquellas que no sean debidas a actuación realizada maliciosamente o a deficiencia en las inspecciones, ni lleven aparejado peligro para las

eragiten ez dutenak, edo instalazioen osagaien bizitza ekonomikoa murrizten ez dutenak, edo erabiltzaileei enbarazurik egiten ez dietenak. Arau-hauste arinen artean aipatzekoak dira tiket-makinak eta seinale bertikalak garbi ez egotea.

personas o bienes, ni reduzca la vida económica de los componentes de las instalaciones, ni causen molestias a los usuarios. Entre las faltas leves cabe mencionar la falta de limpieza de las máquinas expendedoras y la señalización vertical.

Zigorren zenbatekoari dagokionez

De la cuantía de las sanciones

Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arin bat egiten duen bakoitzean, adjudikaziodunak 300etik 1.800 eurora bitarteko isuna jasodezake.

Arau-hauste larriak: Arau-hauste larri bat egiten duen bakoitzean, adjudikaziodunak 1.801etik 9.000 eurora bitarteko isuna jaso dezake.

Arau-hauste oso larriak: Arau-hauste oso larriak 9.001etik 180.000 eurora bitarteko isuna jaso dezake, eta kontratua amaitzea ere erabaki daiteke; halakoetan fidantza konfiskatuko da eta adjudikaziodunak ez du izango inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

Administraziotik kanpoko arrazoirenbatengatik (greba,...) zerbitzua emateari utzi eta Getariako Udalak onartzen ez badu, lan egin gabeko egun bakoitzeko lan egindako azken asteko diru-bilketa osoaren adinako zigor ekonomikoa ezarriko da.

Informazio-sistema zentralizatuaren bitartez

Faltas leves:

Cada vez que se produzca una falta leve, podrá ser sancionada por un importecomprendido entre 300 y 1800 euros.

Faltas graves: Por cada comisión de una falta grave podrá ser sancionado el Adjudicatario con un importe comprendido entre 1.801 y 9.000 euros.

Faltas muy graves: La falta muy grave será sancionada por un importe comprendido entre 9.000 y 180.000 euros, pudiendo llegar incluso a la resolución del contrato con incautación de fianza y sin que el adjudicatario tenga derecho a indemnización alguna.

La dejación de la prestación del servicio por causa ajena a la Administración (huelgas...) y no admitida por el Ayuntamiento de Getaria conllevará por día no trabajado una sanción económica igual a la recaudación de la última semana trabajada completa.

La reiteración en la falta grave de emisión de

nahiz dokumentazio idatzian informazio okerra, akastuna edo faltsua emateko arau-hauste larria errepikatuz gero, kontratua amaituko da, eta adjudikaziodunak inbertsioaren balioaren %50 galduko du urte bakoitzeko, Getariako Udalak abiarazi dezakeen beste edozein ekintza baztertu gabe.

información equivocada, defectuosa o falsificada tanto a través del sistema de información centralizado como en la documentación escrita será motivo de la resolución del contrato con pérdida del 50% anual del valor de la inversión y sin perjuicio de otras acciones que pudiera ejercitar el Ayuntamiento de Getaria.

Iruzur ekonomikoa egiten bada eta isunak ordaintzen ez badira, aurreko paragrafoan aipatutako zigor bera ezarriko da.

El fraude económico y el impago de sanciones conllevará la misma sanción que se cita en el párrafo anterior.

Kontratua amaitzeko arrazoiak izango dira baldintza-agiri honetan zehazki jasota daudenak eta Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan zehaztutakoak.

Serán causas de resolución del contrato las expresamente recogidas en el presente Pliegoy las contenidas en el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Sinatzailea:	Idazkaria-Kontuhartzailea Maria Zendegi Zelaia
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/39/AAAABCY28.MAN4	